

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko abenduak 11 / II. urtea / 54. zenbakia

Baratzako ekologistak



Nekazaritzan adituek gomendatzen zietenari jarraitu zioten haste-hastetik, baina emaitza txarrekin beren gurasoen metodoak —ongarri naturala, belarrikaririk ez, lurren erabilera txandakatuta— berriro erabiltzera behartu zituzten. Nekazaritza ekologikoa beraiekin hasi zen, nekazari peto-peto batzuekin, ekologiaren teoriak deus jakin ez baina lurra eta natura zainetan daramatenak. Ondoren etorri ziren biologoak eta adituak, eta bat etortzean, emaitza izugarriak lortu dituzte azkenotan. Mugimendu guzti hau koordinatzeko joan den urtean sortu zen Nafarroan Bio Lur Nafarroa elkarteak, egunotan Oleritzen (Orba Ibarra) ikastaro bat burutu berri duena.

Barnean

ARKITEKTURA



Moneok irabazitako
Veneziako Zinemari
buruz erakusketa / VII

ARANGUREN



Villamayor alkateak
ezertaz ez dela
damutzen dio / VIII

Metropoli forala



FELIPE RIUS

Askok esaten dute ez luketela metropoli forala deusengatik aldatuko; nik, berriz, aitortu behar dut benetako hiri batera joaten naizenean liluraturik sentitzen naizela eta lehenengo momentuetan behintzat nire jaioterria gustora traizionatuko nukeela. «Garai baterako bai, baina ni ez nintzateke hiri erraldoi batean luzez bizitzeko gauza izanen», esaten dute batzuk nahiz herritik behin ere atera ez diren. Neuk ere ez dakit ataskoaren erdian lasaitasuna gordeko nukeen; beharbada hiru egun pasa ondoren zubiren batetik botako nuke nere burua. Hala ere, orain arte behintzat bolada motzak besterik ez ditut eman eta nire ezagupena nahiko murrizta da —gauza gehienetan bezala, ideiarik ez dugunok izaten gara gehien hitz egiten dugunok—.

Dena dela, bada jaiotzen, sufritzen, mozkortzen, negar egiten, larrua jotzen, maitemintzen, gorrotatzen, harriak botatzen, iluntasunean bideo pornoak begiratzeko eta arratsetan paseo bakartietan ikusi gaituen hiriarekiko nolabaiteko fidelitate sentimendu bat, eta beste nonbaitera joaten garenean adarrak jarriko bagenizkio bezala sentitzen gara nahiz eta jakin hiriak heriotzera bulkatzen gaituela edo kanpoan zementuzkoa ez den maitale bat aurkituko dugula espero. Mugitu direnak ikaraturik bizi izan dira haurtzaroko jokotako plaza abandonatu zutenetik, hiriaren mendekuaren zai egon dira hil diren arte eta azken unean damutu egin dira, ziu-tatea jaingo bat bailitzan.

Foralak ez badira ere, hiri handiak betidanik gustatu zaizkit eta behin baino gehiagotan bizilekua aldatzea pentsatu dut etorbide zabalean nire herriko kaleska hustuetan bilatu dudana aurkituko nuelakoan edo herikideen pentsamendu itxietatik alde egin nahian. Orduan, ahots ezezagun batek botatako mehatxuak entzun ditut eta benetako metropoliak egun batean beren sorterrira utzi zutenen gorpuez beterik ikusi ditut aluzinazio batean sarturik. Metropoli foralaren mendeku krudelaren frogak ikusirik, tren geltoki hurbilena bilatu dut holakoetan eta, bigarren klaseko bagoi batean, burua makurturik, traizionatutako hiri jeloskoraren barkamena bila abiatu naiz egunen batean bera baino indartsuagoa izanen naizela amestuz.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Pedro Salaberri pintorearen lanen erakusketa ikusgai dago Zizur Nagusiko Kultur Etxean, abenduaren 20a arte. Erakustaldi hau azaroa eta abendurako antolatutako ekitaldien artean dago, antzerkia eta musikarekin batera.

M^a Jose Aiestaran artistaren lanak ikusgai daude Tafallako Kultur Etxearen erakusketa aretoan, datorren abenduaren 13a arte. Beste ekintza kulturalen moduan, bertako Patronatoak antolatu du erakustaldi hau.

Ana M^a Sanz Tineo pintorearen lanak ikusgai daude, gaurtik hasita eta datorren abenduaren 20a arte, Lan Kide Aurrezkiak Iruñeko Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Erakusketa ikusteko orduak hauek dira: lanegunetan, 18.30etatik 20.30era eta jaiegunetan 12etatik 14.00etara.

IKASTAROKAK



Ipar eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutak. Orduetara 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskolakoentzat, 4.800pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialekin 6.700pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

ERRAN DUTE

Banekien jendearen pazientzia nerekin bi egunetan amaituko zela».

J.J. Pascual
Osasunako jokalaria

«Eeren asmakizun berriak porrot egingo du».

Iosu Osteriz
EEko burua

«Nafarroa aintzindaria da zaborren birziklaian».

Alicia Lizarraga
Zaborren Lagunak taldearen bozeramailea

«Mina? ez, ez dut minik».

Ambrosio Asurmendi
Iurreko agurea

Eurria sendo, iturbegiak oparo

Euriteen ondotik iturbegiak bisitatzeko garai aproposenak dira, orduan antzematen baita benetan lurra bere baitan gordetzen duen indarra. Larraungo Nafarroako gutxien ezagutzen den horietako dugu, Arteta eta Urederrakoen distantzia txikiak eta ospeak ilunduta, akaso. Jendea harritu liteke Larraun ibarra lurraren azpian ezkutatzen dela jakitean. Aralarren sortua, iturbegi franko aurki daitezke inguruan, eta azpimarratu daitezke Aitzarreta, Iribas, Urruntzurre, Amurgain, eta Larraun bera, Nafarroan, eta Aia, Zazpiturrieta eta Osinberde, Gipuzkoan.

Gure ibilbideak Iribasen izango du hasiera, heritik ateratzen den pistan. Hortik hartuko dugu Baraibarko bidea, eta Aralarren daraman antzinako bideari jarraiki, Erbitzaraino helduko gara. Ondoren, Baraibaretik Aralarren daraman errepideak aurkituko dugu.

Bost kilometroraino ibiliko



gara, eta gero, Aitzarretaraino helduko gara, bide ongi markatuetan zehar. Ertzillatik behera Iribasen izanen gara berriro ere. Hor Lekunberriko bidea hartu

behar dugu, eta heritik ateratzerakoan, bide batetik Larraun ibaiara doan bidea. Bertan dagoen zentral hidroelektrikaren ondotik, Iribasko iturbegi dago.

ZINEMA



'Error fatal' izeneko pelikula eskainiko dute gaur ostirala, hilak 11, Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartekoek, Hizkuntz Eskolaren aretoan, arratsaldeko sei t'erdietan. Filma bukatu eta gero, eztabaida egingen da IHE-Sari buruzko taldeen artean.

'El Doctor' izeneko filma bo-

tako dute datorren ostegunean, abenduak 17, Tafallako Español Zinamaren aretoan, bertako Kultur Patronatoak antolatutak. Zine emanaldia arratsaldeko 8etan eta gaueko 10.30etan izango da. Sarrerak, ohizkoa denez, 175 pezetan salduko dituzte.

MUSIKA



Santa Cecilia orkestrak kon-

tzertu bat eskainiko du bihar larunbata, abenduak 12, Iruñeko Gaiarre antzokian. Musika emanaldi hau 92-93 denboraldirako prestatu dituzten kontzertuen artean dago, Gaiarre, Operaren Lagunak Taldearen laguntzarekin. Zuzendaria Miguel Ortega izanen da.

'Hertzainak' eta 'La polla records' musika taldeak arituko dira bihar larunbata, abenduak 12, Iruñeko Anaitasuna polikirolde-

gian. Jaialdia gaueko bedertzieta izango da, Burlatako Zumadi Elkarrekin antolatutak. Hertzainak talde gasteiztarrek kaleratu berria du 'Denboraren horratzak' bere azken diska, eta hau izanen da Iruñean ematen duen azken kontzertua; izan ere, taldeak dagoeneko desagertuko dela iragarri du.

Mikel Elizagak eta Izarra bikoiteak —iazko kantu txapelketako irabazleak— kantaldia eskeiniko dute Iruñeko Zaldiko elkartean larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel Elizagak Patziku Perurenak 'Iraingo Apaiz gaztearen kantutegi zaharra' liburuan biltzen dituen olerkiak musikatuak kantatuko ditu.

BESTELAKOAK



Koldo Amestoi. Iparraldeko ipuin kontalari aparta gaur, hilak 11, Etxalarako eskola zaharretan arratsaldeko 7etatik aurrera arituko da, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eskutik.

'Antxera lumaka' izeneko ekintzaren bitartez (IHES gaitasuna duen norbait berak lurra ukitu gabe eskuekin garraiotzea) Iruñeko Gaztelu plaza eta Udaltekoa lotuko dira larunbatean, eguerdiko hamabietan. Ekitaldia Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkarrekin eskutik jokatu da, 'IHES: aurreikusitako eta elkarbizi' ihardunaldien barnean.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.


RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrekin, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrekin.

J.I. Lopez Borderias



Herrilan Kontseilaria

Andoni Barbarin



LAB sindikatukoa

Ruben Beloki



Pilotaria

Telebista sarea eta Noingo aireportuaren zerbitzuak hobetzeko bilera izango du gaur Herrilan kontseilariak Madrilen, Espainiako gobernuak goi mailako agintariekin. Borderiasen Retevisión enpresaren zuzendari orokorrekin bilduko da lehendabiziz, aurretik sinatutako komenioari buruz aritzeko. Komenio horretan Nafarroako Gobernuaren sarearen erabilera zedatzen zen telebistako kate pribatuak. Halaber, Aviaco enpresak zuzendari orokorrekin bilduko da kontseilaria, Bartzelonarako zerbitzuak hobetu eta anizteko.

Nafarroan ematen ari den enplegu erregulazioen «joera etengabea» salatu zuen prentsaurrekoan LAB sindikatuak eta PSOEk gure lurraldean egindako politikari egotzi zion ardura. Sindikatu abertzalearen datuen arabera, aurtengo urtarria eta iraile bitartean Nafarroako Gobernuak horretarako 121 txosten onartu ditu (aurkezitako % 95), eta horiek 4.000 langileengan izango dute eragina. Sindikatuaren arabera, arlo eta zonalde guztiak ikutu ditu krisiak, eta Nafarroak arlo zehatz batzuekiko duen menpekotasuna azpimarratu zuten ordezkariek.


Burlatako pilotari gazteak lau t'erdiko finalera pasatzeko aukera dauka, Errastiren aurka, Bergarako pilotalekuan. Hamabi tantu egitea baino ez dauka Rubenek, eta azkoitiarra kontrako gogorra bada ere —Eugirekin erakutsi zuen bezala— nafarra aterako da faborito nagusia. Hala balitz, finala historikoa izango genuke frontoian, pilota irauli duten bi gazte nafarrek: Patxi Eugi agoizkoa eta Ruben Beloki. Haiek dira etorkizuna, eta batzuren ustetan goizegi hasi baziren ere, askoz gehiagoren iritziz, normala den baino lehenago jokatuko dute beren lehen finala.



HERRIZ BERRI



Dantxarinea



Jandarmeen irudia betirako desagertu da Dantxarineako mugan.

Muga astelehenean itxi zuten

PATXI ULAIAR / DANTXARINEA

Lapurdí eta Nafarroaren arteko lehendabiziko muga desagertu zen joan den igandean, berrehun urtetako historia luze eta gero. Dantxarinean, Ainhoa eta Urdazubi batu —eta era berean elkartu— duen mugaren itxieraren eginkizunarako gendarmenak eta agintariak bildu ziren, batzuk negarti, besteak pozik, baina denak historiaren zati bat betikoz galtzen zeneko komen-tzimenduaz.

Urtearen amaiera baino lehen Euskal Herri osoan izango diren mugen desagertzearen lehendabiziko pausua izan zen honakoa. Frantziako gendarmek lore sor-

tak paratu zituzten gerran eroritakoei Ainhoan dagoen monu-mentuari. Giroan nostalgia nagusitu zen bereziki, ez alferrik pasa baiziren urte, harreman, eta pasadizo franko.

ERAGINA LATZA MUGETAN

Duela askotxo eza gutzen zen arazoa zen, baina. Europako Elkartea lehendabiziko pausua ematen hasi zenean, mugaren desagertzearen hasi ziren dagoeneko horren inguruan bizi diren herriko biztanleak, eragina ez baita nolanahikoa izango. Izan ere, EAEko Ikerketa eta Azterketarako Institutuak (IKEI) Nafarroako Gobernuaren enkarguz egin berri duen ikerketaren ara-

bera, Merkatu Bateratuak zonalde guzti honetako 36.000 pertsona ingururengan izango du eragina. Mugaz bi aldeetan izango du eragina mugen desagertzeak. Zenbait herritan hasiak dira jadanik neurriak hartzen, eginiko azterketak kezkarriak bait dira.

Nafarroan herri frankotan bizi izan da mugari esker, eta Zugarramurdi eta Urdazubi baino gehiago, Luzaide, Bera eta inguruetan sortu ziren auzo komertzialek bizitasun handia eman zioten zonaldeei. Horregatik, eta Euskal Herria bi zatitan banatzen duela ahaztu gabe, batzuren ustetan, muga ere mesedegarria izan zaie bertakoei, hortik sortu diren harremanak eta trafikoak

I KEIk egindako azterketa baten arabera, Europako Merkatu Bateratuak ekarriko dituen mugen desagertzeak 36.000 pertsonaren-gan izango du eragin zuzena.

franko bultzatu baitute bertako komertzioa. Hala ere, aspaldidanik hilda dagoen arloa da honakoa, etekinak eta, mugak igarotzeko errezitasunak eta prezioen parekatzen direla eta, asko jeitsi batziren.

GAINONTZEKO MUGAK ITXITA

Dantxarinean ofizialki itxi zen astelehenean, musika bandak, eta jantzi dotoreak eta guzti, baina hainbesteko osperik gabe itxiak dau-de duela askotxo. Ibardin, Etxalar, Izaba edota Lizuniagan ez da poliziarik, eta trafikoa guztiz libre da bi aldean artean. Aurretik Dantxarinean ere egoera bera biziko dute bertatik pasatzea erabakitzen dutenek.

Astelehenean gendarmek izan ziren protagonistak, Pabe edo Baiona aldera joanen baitira drogaren kontra lan egitera. Batek baino gehiagok gogoratuko ditu ganaduzaleen kontrabandoarekin izandako makina bat pasadizo, Ricarden inguruan hartutako kopak, eta langarraren azpian mendi puntetan bizitako uneak. Gaueko lanetako zama-riak ez ziren astelehenean azaldu. Horiek bertan gelditzen dira, gu-txi geldituta ere.



IRURREko herriak Ambrosio Asurmendi Iriarte omendu zuen joan zen astelehenean, Asurmendiren ehungarren urtebetetzearen bezperan. Asurmendi —gaztaroan igotaiarekin maisu izandakoa— mende bat bizitzera ailegatu den lehen irurrearra izateaz gain, Gesalatz osoan mende bat bizitzera heldu den lehena izan da. Hori dela eta, Irurreko Udalak herriko seme kuttun izendatu zuen asteartean, eta horretaz gain txapela bat eta plaka bat jaso zituen agureak. Herriko biztanleek bat egin zuten Asurmendiri eginiko omenaldiarekin.

LIZARRAko Artisauen VI. erakustaldiak jende anitz bildu zuen joan den larunbatean, eta orotara 19 artisauen postuak izan ziren ikusgai. Eguraldiak San Andres peñako antolatzaileei mesede egin zien, eta lizartar franko hurbildu ziren Santiago plazara.

TUTERAko Udalak marokkoar etorkinei laguntza eskaintzeko zerbitzua zabaldu du. Zentro horretan tuterarek etorkin legalentzako lanak eskaini ahal izanen dituzte, baita alokatzeko pisuak ere. Pisuetan biziko diren etorkinen kontrola eramateko ardura hartzen du Udalak, eta modu honetan, azken bolada honetan Tuteran zabaltzen ari den etorkinen aurkako mugimenduari aurre egin nahi dio Udalak.



MURELU-HAUTSIko mendi komunean Zumarraga enpresa kalte ekologiko larriak egiten ari dela salatu du Gorosti elkarteak Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Zerbitzuan. Zumarraga Anaia enpresak harria ateratzen du mendi horretatik, eta Murelu-Hautsiko Udalak harrobi horrek sor zitzakeen kalteak behin baino gehiagotan salatu eta harrobia ixtea eskatu du aldi berean, adituek harrobiaren ondorio ekologikoen ikerketa egin ahal izateko. Enpresak ordea, orain arte ez die Gorosti elkartearen eskakizun horiei inolako erantzunik eman, eta arazoak bere horretan dirau.

OLAZTI eta Lizarra lotzen dituen errepidean kontrolik gabeko zabortegea sortu da Belli izeneko aldean. Legerik gabeko zabortege hau behin baino gehiagotan salatu dute inguruko biztanleek, baina Jurrumendiko Mankomunitateak zaborra bitan bildu baditu ere, autoz bertatik pasa ohi direnek berriro ere zaborra bota dute bertan.

Lizarra

EMANKOR erakundea osatzeko bilera gaur Mankomunitatean


IRUNEA

Gaur ostirala, arratsaldeko 7.30etan Jurrumendiko Mankomunitatean EMANKOR izeneko elkarte sortzeko lehendabiziko bilera izango da. Elkarrekin honen helburu nagusia, bultzatzaileen esanetan, eskualdearen berpizte ekonomikoa lortzeko baliabideak bilatu eta herriak husten dituzten egoerei aurre egitea da. Horretarako giza errekurtsoak garatu, azpiegiturak bultzatu, industria eta enpresaren mundua berpiztu —laguntzen bitartez—, eta turismoa eta aisialdiaren bultzada ziurtatu nahi da. Joan den ekainaren 27an aurkeztu ziren bertan helburu eta planteamendu guztiak. Proiektua eztabaidatzeko azken bilera, baina, gaiari buruzko lehendabiziko desados-

tasunak sortu ziren. Zenbait herri txikitako ordezkariak —Allo, Desoio edo Sesma, kasu—, proiektuaren aldeko bere jarrera erakutsi zuten, baina Lodosa-koek, kasu, kontrako iritzia eman zuten. Azken hauen arabera, eskualdearen garapenak erakunde politikoen eskutik etorri beharko du, ez Mankomunitatetik.

EMANKOR-ek Eibarren (Gipuzkoa) izandako beste proiektuan du jatorria, eta paratutako helburuak lortzeko bost urteko epea eman du, «daukagun egoera beltzari argi pittin bat jartzeko».

Proiektuak 110 milioi pezetako aurrekontua izango luke urtero, eta hasieran Mankomunitatearen egoitza erabilita ere, egoitza berrirako aurrekontua ere eginga dago: 186 milioi pezeta.



Lizarrerria bultzatzea du helburu erakundeak.



Etxean baratza, txikia izanagatik, noizbait izan duenak ez du sekulan galtzen zapore eta sentsazio bizi haien oroimena, eta oraindik frankotan aditzen da merkatuetan edota denda handietan: 'lehengo patata haiek!' edota 'gure etxe ko sagarrak...'. Frogatu beharrik ez dago, kalitatean ez zuten parerik.

Nekazaritzaren iraultzak, baina, kantitateari erreparatu zion lehendabizi, eta produkzioak eta metodo industrialek izugarritzko arazoak —izurriteak, gaixotasunak— eragin zituzten. Horretaz jabeturik, duela hamazazpi urte hasi ziren batzuk Nafarroan teknika horien balioa zalantzan jartzen, eta lehengo erari —ongarri naturalak, lurren ereite-aldaketa, landaketa anitzak— ekin zioten.

Errentagarri egitea zen erronka, jakina, baina hori, haiek diotenez, gainditu dute nabarmen. Hasi zirenek orain dela bi urte osatu zuten Bio Lur Nafarroa, nekazaritza ekologiko hau bultzatzeko elkarte, eta horren balioa etengabe aldarrikatzen dute. Emaizak, bistakoak dira.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Ez dituzte txima luzeak, eta ez zuten gertutik bizi hippyen mugimendua. Gustu handiz hartuko lukete xerra on bat patata frijituakin, ez baitira, derrigorrez, vegetarianoak eta ingurugiro bakar bat dute buruan: Iruñeko Aranzadikoa. Javier Aldaia, Agustín Beroiz eta Juan Mari Soto Arga ibaiak Iruñeko Arrotxapea auzoaren parean egiten duen bihurgunearen ondo-ondoan bizi dira, eta gaur egun gutxi esan dezaketen harro daude: baratziak bizi dira, bizi ere. Hiru nekazari peto hauek aspaldian egin zuten errentagarri beste askorendako amets eta 'kontu arraroa' baino ez zena: nekazaritza ekologikoa.

Badakite ongi asko zer duten eskutartean, eta zapaltzen duten lurra sendoa da. Beren gurasoak, eta aurrekoak, nekazari izan ziren bertan eta beraiei egokitu zitzaizkien txanda hartzea, aldaketa handiak gertatzen ari ziren garaietan. Nekazari guztiek bezalaxe, aldaketa tekniko eta osagai eta ongarri kimikoak hasi ziren erabiltzen, baina, Aldaiak azaldu duenez, «kimikarekin hasi eta teknika berriak erabiltzen hasi ginenean, berehala sortu ziren arazoak». Lurra eta uztak izurrite eta gaixotasun franko izan zituzten, eta ongarri kimikoak,

fitosanitarioak eta abar gero gehiago erabili behar izan zuten.

«Horrek ez zuen ez hanka, ez bururik —dio Aldaiak—, gure gurasoei ez baitzitzaizkien horrelakorik gertatzen. Orduan, haiek egiten zutenari heldu genion berriro ere». Nekazarien senak eta jakinduriak garrantzi izugarria izan zuen aldaketa honetan, baina baita ere garai hartan burua altxatzen hasia zuen ekologiak ere. «Guk bagenekien bide hori ez zela zuzena —azaldu du Beroizek—, baina teknikariak kontrako esanetaz zuten, ez genekien zer egin. Egun batean merkatura etorri zen Juan Manuel Miñan ingeniaria, eta planteamendu antzekoak genituela sumatu genuen. Orduan bildu genuen gure iritzia eta teknikariarena, eta hor hasi ginen nekazaritza ekologi-

Ongarri kimiko eta teknika berrienak ez zuen ez hanka eta ez bururik, gure gurasoei ez baitzitzaizkien horrelakorik gertatzen. Orduan, haiek egiten zutenari heldu genion berriro ere».

koza egiten». Hiru oinarri dute bertan: lehendabiziz, ez da ongarri kimikorik erabiltzen, naturala aprobetxatzen da horretarako. Bigarrenik, lurren erabilera urtero txandakatzen da, eta, hirugarrenik, laborantzak oso lotuta daude inguruarekin. Horren atzetik, nekazaritza eta lurraren filosofia bihotzean daramaten sena dago.

«Hasieran esan ziguten laborantzak ez zirela txandakatu behar —dio Aldaiak—, eta ongarri kimikoek produkzioa igotzen zutela. Baina berehala konturatu ziren zara hori ez dela egia. Lurra zerbait bizi da, eta bertan dagoen ingurugiroa hausten bada, izurriteak hasten dira. Izurriteak bertan daude, lurrean, baina badaude horretarako soluziobide naturalak, lurra dituenak. Hori puskatzen bada, etortzen dira izurriteak. Ongarri naturalarekin lurrean dauden partaide guztiak elikatzen dira, baina oreka ez da hausten».

Hasieran arazo franko izan zituzten, teknikari eta nekazari frankok ez baitzieten sinisten, baina emaitzak bistakoak dira. «Gaur egun ohizkoa den nekazaritzarekin jarraitu izan bagenu, egun, hemen, Aranzadin, ez zatekeen produkzioz izango. Gure produkzioak ordea, gora egin du eta nekazaritza trinkoa eta bortxatua eginda ere». Beroiz-

Javier Aldaia Bio Lur Nafarroako partaidea da, eta barne-barnean darama ekologia eta nekazaritza. Lurra zaindu beharra azpimarratzen du askotan, «gaizki tratatuz gero ez baitziteke ezertxo ere emanen».

A.B.



Aranzadiko baratza dira Nafarroako nekazaritza ekologikoan aitzindariak.

ALBERTO BARANDIARAN

Nekazari ekologistak

Bezeroekiko harremana da lanaren funtsa

A.B. / IRUNEA

Ideiak oso garbi dituzte, eta bizia, lurra eta nekazaritza hitzak etengabe nahasten dituzte, benetan gauza bera balira bezala. Ez dute gustuko traktore eta makina handietan ibiltzen direnak, «horiek ez baitakite lurra tratatzen». Praktikak erakutsi die beren teknikaren balioa, baina, nekazari guztiak bezalaxe, ez dira ametsetan galtzen, eta izugarritzko ahalmena dute lastoa artotik bereizteko. «Iaz 1.300 milioi pezeta gastatu ziren Nafarroan fitosanitarioetan, hau da, produktu kimikoetan» azaldu du Javier Aldaiak.

«Bat-batean horrekin eteten bada, zer gertatuko litzateke? Nekazaritza ekologikoa zabalteko birmoldaketa behar da, osoa, baina birmoldaketa oinarritik egiten ari da, eta unibertsitatean azaltzen diren teknikak, teknikariak, horiek ez dira ukitzen».

Gaur egun, Iruñeko merkatuetan eros daitezke horrelako barazki eta fruituak, eta berebiziko garrantzia ematen diote nekazari zuzeneko harreman honi. Aldaiaren esanetan funtsezkoa da non saldu behar den jakitea, zer ekoiztu behar den erabakitzeke. «Teknikariak esaten dute, lau produktu mota baino ezin dira landatu, baina nik, Aranzadin, 30 espezie desberdin ekoizten ditut, denak arrakasta handiarekin». Gakoa, bere usteetan, zera da: bezeroekin harreman zuzena izatea, hori da eguneroko lanaren funtsa. «Horrela, eskaera oso ongi ezagutu daiteke, eta horren bidez bideratzen da ekoizpena».



Uskarain Legeas

● Egun gebetan Nafarroako Uskarain Legeas elekatzen ei da jende guzia, zeren politikoei aldatu nei emen beituete. Gau dela ta gauza anitz aitu eta leitu izan tugu, gen duzie bertze bat geago.

Gauren ibarra, Aezkoa, legeain 'uskal' zona barnean dao eta urte gebetan Uskarain galtzea ezta baratu batre, altzina dae eta sarri ez tugu ja ere izain.

Orbaetako eskolan, konparazione, aurak amar urte artio daude eta guzia erdaras ematen dute, Uskara pixkirrin bat ere ikusten dutelek, A deitzen duten modeloa... bearrrik uskal zonean dela, kasik iduri du Fiteron dela.

Orei zona gontako 'ben-tajak' toki guzitan imini nei emen dute... tira! Artaxo-nako Uskarain egoera ezta geago gibraltar... erran nei beita Uskaras eiten ez den tokietan laugarri izan deikela, baia bertzetan...

Bingen Amadozek arrazio dauka eskribitzen dueleik optimista izan bear dela, sekulan beino jende gazte geago ikusten beita uskal gauzetan... baia gori Iruñean da egia, gorrekien egoera ezta bertze alde beituugu Ultzaman, Larraunen, Baztanen... Luzaiden, Erroibarren, Zaitzun (?), Aezkoan... eta gen galtzen ei gira anitz, alta gengo mintzoa diferente beita; gau faten bazaigu, ez tugu sekulan berris igual izain... Uskara egun bates normalizatzen bada ere.

Xakin badakigu lege batek solo ez duela mintzoa salbatuko, ez eta galduko ere, gori gaurek dugu gauren eskutian, gauren neian, baia dolugarri zaida zemeit politikoen xakinduria ikustea; duten kezka guzia erdal zonaldean dao eta larriena bertzean da. Goizuetan, berriki ikusi dugun bezala, —lege gonon pean eta uskal zonean— medikuak ez badu Uskaras xakin bear... nora gaza gala? Zerendako nei dugu lege gori?

Baia 'erdal' zonaendako bein legea pixkirrin bat aldatuik, politikoei lakutuko dira berris denbra luze batalduta liteke nekazaritza». Horretarako dago, hain zuzen ere, Nekazaritza Ekologikoaren Jatorrizko Izendapenaren Kontseilua, 1989an sortutakoa. Bertan sartu ahal izateko zenbait arau bete behar dira —epeakako prozesua, instalakuntza egokiak—, eta bi urteko birmoldaketa izan behar dute aurretik aziendek, ilusioa berreskuratu beharra da-


Legasaren ustetan, Euskal Herria osoak aukera handiak eskaintzen ditu honek arrakasta izateko behar den merkatu txikia lortzeko. «Hemen denetarik dugu, Mediterraneoko produktuetatik Atlantikokoetara, eta irudi naturalaren bitartez, franko bultzatu liteke nekazaritza».

Horretarako dago, hain zuzen ere, Nekazaritza Ekologikoaren Jatorrizko Izendapenaren Kontseilua, 1989an sortutakoa. Bertan sartu ahal izateko zenbait arau bete behar dira —epeakako prozesua, instalakuntza egokiak—, eta bi urteko birmoldaketa izan behar dute aurretik aziendek, ilusioa berreskuratu beharra da-

Duikabe eskrito gau Aezkeras ein bear ze (ezontzen dudan negurrian bedere), gala ikusiko duzielakos zer ei giren galtzen.



A.B.



Agustín Beroizen azienda. Atzean, Iruñeko katedrala eta harresiak.

Kalitatea eta kantitatea

A.B. / IRUNEA

Nekazaritza eta abeltzantzaren egoera oso ezezaguna izan da duela gutxi arte, arazoak eta errebindikazioak gizarte osora zabaldu ziren arte, hain zuzen ere. Nafarroako biztanleen % 6k izugarritzko arazoak dituzte gaur egun antzinako bizimodu horietatik bizi ahal izateko, eta horren ondorioz lur franko landatzeari utzi diote. Horrek, bistan denez, bertan bizimodua eta oinarria zuten gizarte ahuldu eta ingurugiroari oso kalte larriak eragin dizkio.

Nekazaritza ekologikoaren filosofian arabera, arazoak ekoizpenaren igoeran du jatorria. Nekazaritzan izan zen industri iraultzaren ondorioz, ekoizpena bihurtu zen garrantzitsua, eta hasieran arrakasta handiak lortu bazituen ere, denboraren poderioz kalitatea franko murriztu zen, eta ingurugiroari kalte handiak ekarri zitzaizkion. Gaur egun, esan daiteke nekazariak kutsadura sortzaile handienetakoak direla, eta azienda txiki gehienetsuenak ez dira errentagarriak.

Angel Legasa Nafarroako Bio Lur elkartearen ingeniari teknikoa arabera, nekazaritza ekologikoa, gaur egun, alternatiba errentagarria da. «Kalitateko janariak ekoizteko modu bat da, bertan ezin baitira erabili ez ongarri kimikoak, ez belarrikari ezta izurrikariak ere, eta produktua osasuntsu eta freskoak lortzen dira, ingurugiroa eta nekazari berarendako inolako kalterik gabe». Honek ondorio zuzena ere badu nekazari eta abeltzainendako, «hauek harro baitira, berriro ere, bere lanaz: nekazari batendako ez dago produktu onak eta estimatuak ateratzea baina gauza hoberik. Halaber, nekaza-

rien inguruari eusteko parada ematen du nekazaritza mota honen».

Frantzia izan zen ofizialki nekazaritza ekologikoa onartu zuen lehendabiziko lurraldea, 1980an. Ondoren Danimarkak onartu zuen, 1987an eta Espainiak 1989an eman zion onepena, Jatorrizko Izendapena arautzeko legearen bidez. Orain arte egindako bidaia honetan, errentagarritasunari buruzko ez-

tabaida izan du beti gainean, baina azken esperientziek haren bideragarritasuna baieztatzen dute. Legasaren arabera, ekoizpena beste aziendetan baino handiagoa da, eta kostuak franko murrizten dira, ongarri kimiko eta izurrikariak ez dira erabiltzen eta. Prozesua zeharo arrakastatsua izateko, elkarrearen ustetan tokiko komertzializazioa lortu behar da, nekazariak prozesu guztia kontrolatu dezan.

Nafarroako ekoizleak, Bio Lur elkarteak bilduta

A.B. / IRUNEA

Nafarroan, egun 143 hektarea daude landatuta nekazaritza ekologikoaren metodoen bitartez, gehienak laboreak eta abeltzantzarendako. Bio Lur elkarteak bilduta, 13 nekazari eta abeltzain dira guztira, eta iparraldera zabaltzeko ahaleginean ari dira egun, «bertan baitago etorkizuna», Angel Legasa elkartearen arabera.

«Iparraldea ezin da lehian sartu Europa erdian dauden aziendekin. Hori dela eta, bi soluziobide gelditzen zaizkie bertako nekazariak: bizitza osorako dirulaguntzen morrontzan aritzea, edo kalitatea eta natura lotzea, irudi ekologiko baten bidez. Hau askoz errazagoa da alde itxi eta txikietan, inguruak ere askoz orekatuago delako».

Horretarako proiektu txikiei erreparatzeko ahalegina eskatzen dute elkartetik, eta nekazaritzatik bizitzea zeharo posiblea dela aldarrikatu. «Mendian bizitzeko ilusioa berreskuratu beharra da-

go, hori da erronka». Barazkia eta fruituez aparte, egun, laboreekin ere nekazaritza ekologikoa bideragarria dela frogatzeko ari da talde bat Orba ibarran, Oleritzen. Horretarako laborantza antzizetan oinarritzen dira. Hau da, produktu bat baino gehiago landu, abeltzaintza ez utzi, eta mahastiak ere berreskuratzea da helburua.

Legasaren ustetan, Euskal Herria osoak aukera handiak eskaintzen ditu honek arrakasta izateko behar den merkatu txikia lortzeko. «Hemen denetarik dugu, Mediterraneoko produktuetatik Atlantikokoetara, eta irudi naturalaren bitartez, franko bultzatu liteke nekazaritza».

Horretarako dago, hain zuzen ere, Nekazaritza Ekologikoaren Jatorrizko Izendapenaren Kontseilua, 1989an sortutakoa. Bertan sartu ahal izateko zenbait arau bete behar dira —epeakako prozesua, instalakuntza egokiak—, eta bi urteko birmoldaketa izan behar dute aurretik aziendek, ilusioa berreskuratu beharra da-

Gazteendako Zokoa

Txinbo kaskabeltza
Sylvia atricapilla
 Zuhaixka eta sastrake-
 tan
 Basafruitu eta insektu-
 ak gogoko
 Europa osoan



Txori bakartia

Uda minean, urtarilaren hasieran, txinbo kaskabeltzek Nafarroa osoko jardinak eta enparantzak zeharkatu eta betetzen dituzte, basafuituak jaten dituen bitartean. Martxoaren amaieran, uzta dagoeneko bilduta, lur hauek uzten dituzte eta erruteko erabiltzen dituzten zonaldeak zabaltzen dira.

Arra nabarra da oso, eta sorbalda ilunagoa dauka, burua beltza. Emeak, bestalde, marroia dauka gorputza. Hatzaparrak, beltzak, mokoa bezala. Sastrakak eta zuhaixkak dituzte gogokoak, eta baso askotan aurkitu daitezke. Udan insektu eta harrak bilatzen dituzte, eta neguan basafuitu nahiago. Ez du asko hegan egiten, eta bakarrik edo talde txikietan ikusten da normalean.

Kantua gogor eta tematsua da, baina udaberrian atsegina eta anitza da. Kabia zuhaisketan paratzen ditu, altura gutxian, eta oso material gutxirekin. Europa osoan erruten du, baina neguan Europako hegoaldean dago. Oso zabaldua dago Nafarroan, eta horrek, hain anitza den lurralde batean, asko esan nahi du.



Alkoholaren eragina gazteengan

ORREAGA BARBERENA

Drogei buruz hitzegiterakoan beti droga gogorak aipatzen ditugu: heroina, kokaina... Haur garrantzi haundiagoa ematen diegu bere eragin psikiko eta psikologikoagatik, eta HIESa erlaxionatzen ditugulako. Alkoholari, aldiz, garrantzi gutxiago ematen diogu, honen eraginak ezberdinak direlako. Denboraren poderioz alkoholak pertsonengan egiten dituen aldaketak ikusten ditugu. Gazteengan aldaketak oso haundiak dira, alkoholak gazteengan duen eragina oso haundia delako.

Gazteak edaten hasten direnean janzkeraz aldatzen dira, zenbaitetan gaztearen izaera jasangaitza izaten da, eta askotan ikasketak uzten dituzte. Kotxe

edo motorretan ibiltzen diren gazteek edaten badute egundoko istripuak izaten dituzte, gorputzak ez duelako normaltasunez

Gazteak edaten hasten direnean janzkeraz aldatzen dira, zenbaitetan izaera jasangaitza izaten dute, eta askotan ikasketak uzten dituzte.

funtzionatzen. Gazteengan naiz helduengan gertatzen da hori.

Gutxi gora behera, edaten hasten da hamairu urtekin, erretzen

hasten den heinean. Alkoholaren kontsumoa oso haundia da eta istripuak gertatzeko posibilitate haundiak daude. Alkoholikoak ezin dira drogagazaleekin konparatu, alkoholikoen bizia luzeagoa delako.

Alkoholarekin erlaxionatuta dagoen gaixotasuna 'delirium tremens' da. Alkohola neurrigabe hartzerakoan, alkoholak odola zikintzen du, eta alkoholikoek aluzinazioak ikusten dituzte. Haien bizitza penagarria izaten da, eta denboraren poderioz jendeak errukiz begiratzen ditu. Orduan alkoholikoak baztertuak sentitzen dira. Alkoholari buruzko informazioa ez da ematen jendeak beldurra hartzeko, baizik eta jendeak alkohola neurriarekin hartzeko.



BASAJAUN

Gaur, etxeko produktuak eta gure haltzariak goitik behera garbitzeko erabiltzen ditugun garbikariei buruz hitzegingo dugu. Askotan uste dugu horrekin osasuna zaindu eta garbiketa osoa lortzen dugula. Guztiz kontrakoa da, ordea.

'Marketing berdeari' buruz etxeko garbikariak ekoizten dituzten enpresa kimikak azkenotan martxan paratu dituzten kanpainak ez dizkiete osagaiak kendu garbikariei, ezta formula likidoak lurra garbitzekoei ere, eta soilik segurtasuna eta osasunaren irudi faltsua sortzeko balio dute, etiketan, garanti osoa balitz bezalaa, 'Naturaren lagunak' lema baitakarte.

Deusek ez dauka garrantzia, ekologiaren aldeko produktu bihurtuz gero, fosfatoak eta CFC'S ez baitauka. Berdin da txuritzaile optikoak eta ezimak izatea, asma eta alergiak sortzen badira ere. Dena ona da poltsikoarentzat. Gure osasuna zaintzen dugula uste dugu, produktuaren txorrotada on bat erabiliz gero, eta horrekin gure arnas aparatua zeharo izorratzen ari gara. Osagai batzuk zenbait asteren buruan urtzen dira, baina gehienak kalte larriak eragiten dituzte.

Usain onak ez du esan nahi garbiketa. Are gehiago garbikariei usain ona dute lurrinei esker, eta horiek kostata degradatzen dira. Ez dute garbitzen, baizik eta ingurua izorratzen. Produktu gehienak animaliekin frogatu dira. Torturak beraz. Eta lixiba da horietariko kaltegarrienetakoa, bizitza duen guztia, baita onuragarria ere izorratzen baitu.

Jenero Xumekoak

Espaloietan

Nola izaten bait dira espaloietan baldosa solteak, zeinak, euria egiten duelarik, basamortuko minak bezala lehertu egiten diren zure oinetan, prakak lohituaz, hala bada, patua horrelakoa da, ixila, harik eta markaturik dagoen eguna zapaldu arte, eta handik harat kakalabaka.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Lehenengoa
2. (Pl.) Hura
3. Herri nafarra
4. (Subj.) Nuen
5. Eskualde nafarra

1	2	3	4	5

1. Basilika nafarra
2. Lantu
3. Herri nafarra
4. Opila
5. Neureak

1	2	3	4	5

1. Konturatu
2. Oinetakoak
3. Herri nafarra
4. Arto opila
5. Zumoak

1	2	3	4	5

Zaharrak berri

Etxamin honi nondik joaten zaio kea?

Etxealde honi nondik heldu zaio hondamena?

Mezkiritz

Lagun talde bat elkartu eta bazkari ederra egin behar zutela erabaki zuten.


—Nik haragaia ekarriko dut.

—Nik ardoa.

—Nik neure anaia ekarriko dut.

Bizi Bizian

Egunotan ikus daitezke Iruñeko Gotorlekuan Veneziako Zinema Jauregi berriarendako lehiaketaren proiektuak, horien artean Rafael Moneo arkitekto nafarrarena, irabazlearena hain zuzen. Kontuan harturik bertara aurkeztu ziren artistak —munduko garrantzitsuenak—, interes handiko erakusketa dugu hau, eta aipatzekoak dira iragarrita dauden mintzaldiak, bereziki tuterarrak gaur bertan, arratsaldeko 7.30etan Golem zinema aretoetan emango duena.



Veneziako Zinema Jauregirako Moneoren proiektua.

Moneo eta Veneziako Biurtekoa

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Veneziako Biurtekoak 1990ean atera zuen lehiaketara bere Zinema Jauregia zabaltzeko proiektua, eta bertara munduko arkitektoen hoberenetakoa azaldu ziren. C. Aymonino (Italia), M. Botta (Suitza), S. Fehn (Norvegia), S. Holl (EEBB), F. Maki (Japonia), J. Nouvel (Frantzia), A. Rossi (Italia), J. Stirling (Britainia Handia) eta Ungers alemaniarra, Moneoren batera, lehian aritu ziren Ubide Handiaren ondotik beren lanak erakitzeko.

Kultur elkarte hau Europako garrantzitsuenetakoa da, eta erai-kin honetan, besteak beste, urtero ospatzen den Mostra Zinema Jaialdia egiten da. Arkitekturaren mundurako lan garrantzitsua, beraz. Bertan Mongo tuterarraren proiektua atera zen garaile, bertako ingurura egokitzeko erakutsi zuen ahalmenari esker, askoren ustetan.

Moneok, kasu honetan, eta bere bilakaera profesionalen ohizkoa izan denari jarraiki, tokiari erreperatu zion lehendabizi. Eraikinak, oso trinkoa —luzerako dauden bi areto handi bere baitan—, itsasoarekiko duen joera erakusten du garbi, hiriaren izaerarekin berarekin batera, eta Lidotik Veneziara doan itsasuntzi handi baten antza hartzen du. Barrutik oso sinplea da: plataforma handi bat eta bi areto, osakera 'organiko' nabariarekin —Mo-


neoren azken lanetan ohizkoa den bezala—. Kanpo aldetik bolumena soilik sarrerako markesinak hausten du.

Oso emaitza erakargarri eta xumea, finean, baina arkitektoa antzinako eraikina botatzearen alde azaltzen zen bere proiektuan. Italiako erakundeak, ordea, eraikin zaharrari eustea planteatu omen dio tuterarrak.


KURSAAL ETA STOCKHOLM Proiektu honek lotura handia dauka Donostiako Kursaal (1990) eta Stockholme (Suedia) Museorako

(1991) aurkeztako beste bi proiektuekin. Hiruretan Moneok aurreko lanekiko duen aldaketa sumatzen da, nahiz eta arkitektura tokiaren ezaugarriak lotzeko erabakiari eutsi dion. Kursaal Urumea ibaia eta hiriaren zati 'itxi' baten artean dago kokatuta, XIX. mendeko ideia batean harrapatuta.

Arkitektoak, baina, ez du hiriaren ideia hori luzatzen, eta arkitektura sinple, abstraktoa eta eskulturarekin oso lotuta aukeratu zuen. Horrela eman zion bukaera aspaldidaniko arazo bati.



Mallorkako Palmako Miro Fundazioarendako maketaren zati bat.



Rafael Moneo.

Proiektu bat, estilo bat


P.U. / IRUÑEA

Jose Rafael Moneo Valles Tuteran jaio zen 1937ko maiatzean, eta Madril burutu zituen arkitektura ikasketak. 1958tik 1961era bitartean Saez de Oitzarekin egin zuen lan eta geroago Jörn Utzonekin, Hellebaecken (Danimarka). 1963tik 1965era Erroman aritu zen, eta ondoren klaseak eman zituen New Yorkeko Arkitektura Fakultatean. Bere lanen artean azpimarratzekoak dira Meridako Erromatar Garai-

ko Arte Museoa (1980-86), Sevillako Aireportua (1987-91), Madrilko Atochako Tren Gertokia (1985-92), Donostiako Kursaal (1989), Veneziako Lido Zinema Jauregia (1991), eta Houstoneko (EEBB) Arte Ederretako Museoa.

Munduko arkitektoen onenetakoa da Moneo, eta proiektu bakoitzari ematen dizkion soluzio bide desberdinek markatzen dituzte bere lanak. Gazte garaian bi erreferentzia ezinbestekoak izan zituen tuterarrak: Leopoldo To-

rres eta Saez de Oitza, bien eragina franko desberdina bada ere. Lehendabizikoak sakontasuna eta oreka emango dio, nortasuna. Bigarrenarekin lanbidea ikasiko du. Baina horretaz gain, Erromak marka iraunkorra zizelduko dio: bere estiloa nabarmendu beharrean —beti eutsiko dio, hala ere, ukitu sofistikatuari— eraikin bakoitzerako arkitektura bilatuko du. Horrek eman zion, adituen ustetan, Veneziako saria, beste arkitektoek aurkeztutako lan pertsonalegien aurrean.



Donostiako Kursaalaren proiektua.



Donostiako Kursaalaren proiektua.

J. Antonio Villamayor

.....Arangurengo alkatea

Heldu den astelehenean, hilak 14, «ordena publikoa hausteagatik» 22 arangurendar epaituko dituzte Nafarroako Auzitegi Nagusian, eta horien artean, alkatea, 1990eko apirilaren 2an —Hirietako Hondakin Solidoen

Tratamendurako Zentroaren erakuntza lanen hasiera eguna— Goardia Zibila eta Arangurengo herki-deen artean gertatutako liskarrak aztertuko dituzte, baina Goardia Zibilak soilik bizilagunen kontra eginiko salaketak hartuko dira kontuan.

«Ez gara ezertaz damutzen»

J.K. LAKASTA / MUTILOABEITI

EGUNKARIA.— Justizia boterearen alde dagoela esan zenuen duela gutxi.

J. ANTONIO VILLAMAYOR.— Bai. Argi dago gure epaiketa ez dela inondik inora zilegi. Herri mugimendu bat zigortu nahi dute. Gurea ordena publikoko arazo bat dela agertarazi nahi dute, eta haiek egin dutena gure eskubideak zapaltzea izan da. Gure erru bakarra Mankomunitatearen erabaki oker bati aurre egitea izan da, zaborteziaren eraikuntza lanen hasiera oztopatzea. Apirilaren bian arangurendar bat larri zauritu zuen Goardia Zibilak, beste bat ez horren larri eta gaitortzekoei hezurak hautsi eta

buzerurako traumatismoa ere eragin ziguten, baina gure salaketak ez dituzte kontutan hartu. Epaietara bideoa eramanen dugu, eta horrek gauzak asko argituko ditu. Goardia Zibilaren adierazpenak oinarritzat hartuz, 22 lagun ordena publikoa hausteagatik epaitzea tamalgarria dela uste dugu. Ez dakigu epaietaren atzean zer dagoen, baina lasai gaude. Gertatu zena berriro gertatuko balitz nik berri ere egin nuena egingen nuke, ez naiz ezertaz damutzen.

EGUNKARIA.— Epaietara PSOEren mendekua izan daitekeela adierazi duzue. Zer esan nahi duzue horrekin?

VILLAMAYOR.— Mendekua izatea litekeena da. Urralbururen gobernuaren kontrako borroka

latza izan dugu, eta politikoki borroka horren ondorioak ordaindu behar izan dituzte. Alde batetik, Tajadurak eta Mankomunitateko beste kide batzuek behin baino gehiagotan gutxietsi eta iraindu gaituzte. Eman dituzten argudio guztiei aurre egin diegu, eta ziurrenik mendeku egarria izanen dute.


EGUNKARIA.— Zer deritzezu Arangurengo aferaren aurrean partidu politikoei izan dituzten jarrerai?

VILLAMAYOR.— Hasieran guztiak gure aurka jarri ziren. Politikoen kezka nagusia botoak dira, eta Arangurengo bailaran jende gutxi bizi da. Jasan genuen errepresioa ikusita HBk bere jarrera aldatu zuen, eta positibotzat jotzen dugu hori. IUk ere azkenaldi honetan badirudi gure alde egin duela. UPNk ez du jarrera oso argirik hartu. PSOEk hartu zuen borrokaren ardura, eta ez dute arazoan parte hartzerik nahi izan. Hala eta guztiz ere, ezin da ahaztu lizentzia

Allik sinatu duela. Orain epaietan Alli eta bere gobernuaren jarrera ikusi ahal izanen dugu. Ez dakit jarrera hori zein izanen den.

EGUNKARIA.— 1990eko urtarilean EGUNKARIAK egin zizun elkarrizketan «zaborteziak bailara batzea» lortu zuela zenion. Bailarak batua dirau?

VILLAMAYOR.— Bai, batez ere epaietaren aurrean. Borroka urte hauetan desadostasunak ere egon dira, baina hori normala da edozein borrokatan. Epaietara



‘Zabortezi’ hitza egokiagoa da, «% 6 bakarrik birziklatzen da». LACALLE

dela eta, autoinkulpazio kanpainan egin dugu, eta ederki ateratzen ari da. Elkartasun adierazpenak bailaratik kanpoko herrietatik ere ailegatu zaizkigu. Alde batetik, Iruñerrian epaietaren kontrako sinadurak biltzen ari gara, eta bestetik udaletxe askotan epaietaren kontrako mozioak onartu dituzte, Bera, Noain, Etxarri, Aurizberri, Ultzurrun, Bargota eta

beste hainbat lekutan. Horretaz gain, Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordean mozio bat aurkeztu dugu apirilak biko gertakizunen bideoa Parlamentuan ikus dezaten, eta onartuko dutela uste dut.

EGUNKARIA.— Zer lortu duzue borroka urte hauetan?

VILLAMAYOR.— Lehenik eta behin nik ezertaz ez naizela da-

Borroka urte hauetan jendeari politiko batzuk nolakoak diren eta zer egiten duten erakutsi diogu, baita Justizia batzuetan nolakoak den ere».

mutzen argitu nahi dut. Gauza onak lortu ditugu. Jendeari politiko batzuk nolakoak diren eta zer egiten duten eta baita ere Justizia batzuetan nolakoak den argitzea lortu dugu. Administrazioetik ziria sartzen saiatzen dira, eta ona da jendeak arazoetan parte hartzea. Hasieran egin behar ez zuten birziklapenerako planta mar-txan dago guk egin dugun pre-sioari esker. Baina aldi berean, hasieran egin behar zuten kon-post planta ez dute egin. Iruñean zaramaren % 60 organikoa da, eta konpost plantarik gabe, hori guztia lurperatu egiten da, bes-terik gabe.

EGUNKARIA.— Gongoran dagoena zer da, zabortezi ala Hirietako Hondakin Solidoen Tra-tamendurako Zentroa?

VILLAMAYOR.— Zabortezi, dudarik gabe. Egun zaborraren % 5 besterik ez da birziklatzen. Proiektuaren berri izan genuen bezain laister inguruko zaborte-gietara joan ginen, nolakoak zi-ren ikustera. Guztietan HHSTZ jartzen zuen. Gasteizkoa eta Do-nostiako anabasa izugarriak zi-ren, desastre hutsa. Zaragozako ireki berria zen, eta desastre bat izateko urte batzuk falta zitzaiz-kion. Oraingoz Gongorako zab-ortegi kontrolatua da, baina Arangurengo Udalak kontrola-tzen duelako, bestela akabo.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERDA

